

Iparraldea BERTAN

24. EDIZIOA

Otsailak 25, eta martxoak 4, 11 eta 18

2025

**KOLDO
MITXELENA
KULTURUNEA**



Santa Teresa komentua
Elbira Zipitria bidea, 1, 2.
20003 Donostia
943 112 893
kmk.gipuzkoa.eus
programazioa@gipuzkoa.eus



Ekitaldia zuzenean jarraitu


eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Iparraldea Bertan zikloaren XXIV. edizio honetan
Iparraldearekin partekatzen dugun kulturaz gozatuko dugu
berriro. **Otsailaren 25etik martxoaren 18ra bitartean**
konpartituko ditugu film laburrak, errezitaldi musikalak eta
Martin Lerissaren azken diskoaren aurkezpen emanaldia.
Saioak lau astearte jarraietan izango dira.

L.G. D-224-2025

Diseinua: Concetta Probanza



Gastibeltza Filmak: euskal zinema Iparraldetik

Katti Pochelu, Eñaut Castagnet,
Itziar Leemans

Gastibeltza Filmak 2018an sortu zen Lapurdin, euskal historiari soinu eta irudiz kontatzeko. Historia hauek Euskal Herritik kontatzeko beharrak bultzatu zituen, euskaratik pentsatuak eta euskaraz eginak. Egin dituzten filmen lagin bat erakutsiko digute, bi film laburrekin:

Ximinoa (Itziar Leemans, Al Borde Films). Junek, udako lehen lana aurkitu du. Constance zaintzen du, maitasun eskasa duen neskato sentikorra. Laster mantsotzen du haurra eta urte osoan bere haurtzain

Otsailak
25 Asteartea
19:00etan



izateko ilusioa hazten zaio. Haurrari lotzen zaion heinean, klase harremanen bortizkeria eta bere identitatearen ukapena deskubritzen ditu.

Muga (Eñaut Castagnet, Mirkotuna). Joxeanentzat, Euskal Herrian mugarik ez da. Astero alde batetik bestera pasatzen da, zerrien saltzeko. Kamarurentzat ordea, oztopo eta lanjer guzien sinonimoa da muga. Alta, haien bideek elkar gurutzatuko dute.

KONTZERTU-OMENALDIA. **Hiru emazte kantari gogoan**



Ikusgarri hau, Euskal Herriko hiru emazte kantari aipatzeko eta argitan emaitako sortua izan da: Lurdes Iriondo, Maité Idirin eta Estitxu Robles Arangiz. 1960 eta 70eko hamarkadetan emazte guti zen taulen gainean kantari. Garai hartan dena egiteko zen, dena egiten ari eta euskal kontzientzia ere sortzen ari zen.

Egiazko militante lan bat egin dute: Hizkuntza, kultura, Aberria, sozial saila... Gai horiek oro erabiltzen zituzten berek egin kantu berrietan. Emaztearen tokia egin dute gizon kantarien artean bai eta gizartean. Gaur egun ez dira hemen beren lekukotasuna emaitako eta ikusgarri honen bitartez nahi ditugu eskertu egin duten lan ederrarentzat eta utzi daukuten altxorarentzat.

Martxoak
4 Asteartea
19:00etan

Maidier Bedaxagar, Naia Robles Arangiz, Maialen Alfaro (kantariak); Maite Ithurbide, Jacqueline Idiart, Patxika Erramuzpe, Pantxika Heguiaphal (eramaileak)

KONTZERTU-ERREZITALDIA. **Kamila Zubeldia & Aguxtin Alkhat**



Bakoitzak bestearen proiektu ezberdin batzuetan parte hartu ondotik, idazlan edo kantuan, Kamila Zubeldiak (Unama, Saioa) eta Aguxtin Alkhatek bikote akustiko berria osatu dute. Iraganean idatzitako kantuak abesteaz gain herri honi beste sorkuntza batzuk eskaintzea dute xede, hitz landuak melodia goxoekin uztartuz, euskal kultura eta izaiteari omenaldi bat bezala. Bi gitarra, bi ahots, galtzekoa ez den momentu bat.

Martxoak
11 Asteartea
19:00etan

DISKOAREN AURKEZPENA. **Mattin Lerissaren Mundu zabalerako**

Mattin Lerissa,
Mixel Ducau,
Iñaki Dieguez,
Txomin Duhalde

Behorlegitarraren hirugarren lanak, "Mundu zabalerako", hamar kantu biltzen ditu, gehienak folk moduan. Orokorrean, berak musikatu ditu eta, aldi berean, Aguxtin Alkhat, Mixel Ducau, Jojo eta Ramuntxo, Manex Pagola eta Robert Charlebois-en doinuak berriz hartu ditu. Musikarrietan, Mixel Ducau,

Iñaki Dieguez eta Txomin Duhalde lagun izan ditu proiektu honetan. Hitzegileetan, jadanik aipatutako Aguxtin Alkhat eta Manex Pagolaz gain, Itxaro Borda, Manex Erdozaintzi Etxart, Pantzo Hirigarai, Daniel Landart eta Jean-Louis Davant-en idatziak goza daitezke. Hain zuzen, Manex Erdozaintzi Etxarten kantu batek izena eman dio diskoari. Euskara, adiskidetasuna, libertatea, migranteen

Martxoak
18 Asteartea
19:00etan



egoera latza... Mattin Lerissak hainbat gai jorrazten ditu azken urteetako gertakariak hausnartzeko asmoz.